



## **COVID-19AK ERAGINDAKO OSASUN ALARMAREN ONDORIOZ BIZI DUGUN EGOERARI ERANTZUTEKO BUSTURIALDEKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAN HERRITARREK ESKURA DITUZTEN BALIABIDEAK**

COVID-19 birusa dela eta sortutako osasun-alarmaren egoerari erantzuteko, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean herritarren esku ditugun baliabideen berri ematera gatoz.

### **HERRITARREI ARRETA ETA INFORMAZIOA**

- Arreta telefono bitartez ematen ari gara, goizeko 7.30etatik eguerdiko 15.00etara.
- Familiak edo herritarrek premiazko beharrezana izanez gero, gure eskumena diren laguntza eta zerbitzu guztiak bideratzen ditugu: mendekotasun balorazio eskabideak, gizarte larrialdietarako laguntzak...
- Immigrazio zerbitzua eta Lege aholkularitza zerbitzuak martxan ditugu, ohiko ordutegian eta telefono bitartez hauek ere.
- Salbuespen egoera honetan, gure zerbitzuaren eskumena den larritasun bereziko egoeraren bat sortuko balitz, arreta presentziala egiteko aukera ere zabalik dugu.

### **ADINEKO PERTSONEN ZAINTZA**

- Herritarren batek etxetik irten behar badu familiarrekoak zaintzera, gure zerbitzutik jakinarazpena egiten gaude, irteera hori justifikatu ahal izateko.
- Arriskuan dauden kolektiboak elkartasun-sareekin harremanetan jarriko ditugu, Gurutz Gorria eta herriz herri sortu diren taldeen bitartez laguntza jaso eta isolamendu egoerak ahal den neurrian saihesteko.

### **GIZARTE ARRISKUAN DAUDEN FAMILIAK:**

#### **Zailtasun ekonomikoak dituzten familientzako laguntza**

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bitartez **OINARRIZKO BEHARRIZANETARAKO LAGUNTZAK** bideratzen ari gara. Behin behineko lana edota lan baldintza eskasen ondorioz diru-sarrerarik gabe gelditu diren familiei zuzenduta.

Beharrezkoa denean, eskualdeko Gurutz Gorriarekin eta Caritasekin elkarlanean ari gara, familia hauei laguntza gehigarriak eskaintzeko, bai laguntza ekonomikoen bitartez, bai elikagaien banaketaren bitartez.



### Hautzaro eta familia arloa

- Laguntza prozesuak zabalik dituzten familiekin kontaktuan jarraitzen dugu, salbuespen egoera honek beraien bizi kalitatean sor ditzakeen gora beheretan laguntza eta babesa eskaini ahal izateko. Horretarako, gizarte langileak, hezitzaileak eta psikologoak telefono edota bideo-deien bidezko lana egiten ari dira.
- Ikastetxeekin eta Berritzegunearekin lankidetzan jarraitzen dugu, bizi dugun egoera honen aurrean, umeekin egiten dugun lanean, denon artean arretarik egokiena eskaini ahal izateko.

Laguntza edota informazioa beharrianez gero, jarri gurekin harremanetan:

94 625 51 22

[gizarte-zerbitzuak@busturialdea.eus](mailto:gizarte-zerbitzuak@busturialdea.eus)